

Florida auzoan bizitako emakumeek bazkaria egingo dute gaur berriro ere elkarrekin egoteko

■ Bazkaria Etxeberriko Lagun-Artean izango da eguerdiko 14:30etan ■ Bazkarian 35-80 urteko 100 bat emakume bilduko dira, denak urtetan Floridan bizitakoak ■ Florida asko aldatu da azkeneko 30 urteetan.

FLORIDA Auzoan urtetan bizitako emakumeek bazkaria dute gaur 14:30etan Etxeberriko Lagun-Arteako soziedadean. Aurreneko aldiz duela bi urte egin zuten bazkari hau eta asmoa zen Floridako barriotan aspalditik bizi zirenak berriro ere elkarrekin eta kontu kontari aritzea. Bazkari honetan aspaldi elkar ikusi gabeko jendea biltzen da. Duela bi urteko bazkarian adibidez 20 urte elkar ikusi gabeko emakumeek egin zuten topo, eta mahaira bazkaltzera ezin eseri ibili ziren 20 urtetan esan gabeko istorioak kontatuz.



Belen Altuna, Arrate Azurmendi, Pilar Nabarro eta Pili Altuna Floridan aspalditik bizitakoak.

Askok aldatu den auzoa

Hernani asko aldatu da azken urteetan eta hori asko nabaritu dute Florida Auzoko emakumeek ere. "Lehen Florida herriatik aparte geratzen zen eta auzoan ere ez zeuden orain dauden etxeak, horregatik nortasun haundiagoa zuen auzoak" diote aspalditik Florida ezagutzen duten

emakume hauek. "Umetan edozein lekutan jolasten genuen, dena zelaia zen-eta. Gainera ez zegoen orain bezalako trafikorik" diote duela 30 urteko garaia gogoratuz.

Floridako parte diferentetako emakumeak joango dira bazkariara eta oraindik ere garai bateko etxeen izenak

"Floridan bazegoen zentroa deitzen genion leku bat, orain eliza dagoen horretan, eta bertan ikasten genuen dantzan, Olentzerotan kale buelta egiten genuen, txokolatada eta gauza gehiago"

erabiltzen dituzte Floridako zonak izendatzeko eta bakoitza nondik datorren esplikatzen: Txoko, Bestizan (estazio ingurua), La Cumbre, Benta Berri, Etxe Haundi, Tudela (orain Zingizanga dena), Jose Antonio (orain Sagastialdeko etxeak dauden lekua), Artetxe Etxea, eta abar.

Gizonezkoak sukaldari

Gizonezkoek bazkarian asko laguntzen dutela diote bazkariara dijoazten emakumeak, bazkaria beraiek egiten baitute eta kamarero lanetan ere beraiek aritzen baitira. "Uste dut beraiek guk baino hobeto pasatzen dutela gu bazkarian nola gabiltzan ikusten duten bitartean" diote emakumeek.

Bazkarirako menua ez da nolanahikoa: entremesak (patea, urdaiazpikoa...), legatza almejekin eta saltsan, solomilloa roquefort saltsatan, brazo gitanoa, izozkia, kafea eta kopa. □



1969an Florida auzoan zehar Olentzerotan egin zuten kale bueltako argazkia.

BERTSOLARITZA

Lujanbio, Eizagirre eta Mendiluze bihar semifinallean

GIPUZKOAKO Bertsolari Txapelketa semifinaletan sartu da eta bihar jokatuko da fase honetako aurreneko saioa. Hernaniarretan, Estitxu Eizagirre aurreko faseetatik sartu dena, eta berarekin batera, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze arituko dira. Azken biak orain sartuko dira txapelketan. Eizagirre, Lujanbio eta Mendiluzerekin batera, Amaia Agirre, Gorostidi eta Arkaitz Goikoetxea arituko dira kantari.

Semifinaletan hiru saio jokatuko dira. Zarautzen hurrengo eta Tolosan azkenekoa. Saioko aurreneko finalean sartuko da zuzenean, eta zortzikotea osatzeko beste bostak puntuazioaren arabera sailkatuko dira. □

FUTBOLA

Real Union-Hernani gaur, Irunen

JON Loranen mutilek Real Unionen kontra jokatuko dute gaur, Galen, 17:30etan. Hernani azken hirugarren dijoa eta 9 puntu ditu, 9ak kanpoan atereak. Real Union 8garren dijoa, 15 punturekin, liderretik 3 puntura.

Bestalde, Emakumezkoen Ligan, Hernanik bihar jokatuko du Añorgaren kontra, Zubipen 11:30etan. □

ERRUGBIA

Hernani-Ejea, bihar Landaren

LIGA Nazionalean Hernanik Ejearen kontra jokatuko du igandean. Landaren, eguerdiko 12:00etan. Hernanik liga hasiera bikaina egin du eta orain arteko partiduen denak irabazi ditu. □

Antziola-Motor
Salmenta eta taller zerbitzua

Ford Mondeo

3 aukera ezberdin, gusto ezberdinentzat:

- 4 ateko elegantzia
- 5 ateko deportiboa
- Wagon familiarra

Etorri, ikusi eta aukeratu.

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

OIALUME BILTOKIA.

Igande eta jaiegunetan dantzaldia, 19,30etatik

Bihar Igandea, dantzaldia. ZATOZ!

OIALUME BILTOKIA

Oialume auzoa
943 55 29 38

TIEN 21
Especialistas en Electrodomestios

CANAL+

DIGITAL+

Telemar - Itxastele
Elkano 13 - Tel.: 943 55 33 99
Nagusia 7 - Tel.: 943 33 26 00

Telemar ANTENAK
TB ANTENA PARABOLIKOEN INSTALAZIOA
INDIVIDUALAK ETA KOLEKTIBOAK
TELEDISTRIBUZIOA
KONTSERBAZIO eta MANTENIMENTUA

Telefonia fijo eta mugikorra
Telefonica Movistar

ATLETISMOA

11 medaila Atletiadan

HERNANIKO atleta gazteek paper elegantea egin dute Vigarren Atletiadan, Anoetako Belodromoan jokatu-tako probetan. CD Hernaniko 18 atleta izan ziren proban, eta asko lehenengo aldiz. Anoetan izan zirenak: Mikel Von Wichmann, Manex Pagola, Ane Villaverde, Estibaliz Lion, Eider Aldabe, Jon Novoa, Josu Vila, Jorge Sanchez, Ibai Beraza, Nora Erroizenea, Janire Garin, Aiheko Olabide, Egoitz Gomez, Alaitz Vangeneberg, Izaro Azurmendi, Ana Herre-ro, Miriam Arrozpide eta Leire Juanes.



CD Hernaniko atleta gazteak Vigarren Atletiadan.

Henaniarrek dena 11 medaila irabazi zituzten, proba eta kategoria ezberdinetan. Anek urrea 60 m alebinetan, Norak brontzea 60 m kadeteetan, Eiderrek urrea 1.000 m infantil eta kadeteetan, Mikel, Manex, Jon eta Josuk zilarreko medaila 4 x 100 errelebotan, eta Estibaliz, Eider, Janire eta Norak (brontzeko medaila 4 x 100 errelebotan). □



Asteazken goizean Elkanoko kontenedoreen egoera hauze zen.

Keja, zaborra kalean pilatzen delako

ELKANO kaleko komertzio eta bizilagun batzuk kejaratu egin dira udaletxean, kartoiak eta plastikoak pilatzen direlako Elkano kalean dauden basura bereizteko kontainerren kanpoan. San Marcos Mankomunitatea, birziklitzeko zaborra jasotzeaz arduratzen dena, astean bitan pasatzen da kontainerak hustutzeaz, eta bizilagunek gehiagotan egitea eskatzen dute.

Andoni Amonarraizek, zerbitzueta zinegotziak,

Kronikari adierazitakoaren arabera ez du arazoa zein den ulertzen. "San Markos Mankomunitateak badu atez ateko zerbitzua eta ez dut ulertzen zergatik oraindik hainbat komertzio ez duten zerbitzu hori eskatu. Bestetik, zaborra jasotzeko maiztasuna ikerketa baten arabera jartzen da eta hemendik gutxira bertuko da ikerketa hori, orain 2002an egin zen ikerketaren arabera funtzionatzen baitu zabor bilketak" dio zinegotziak. □

KIROLA

ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA		Taldeak		Non		Noiz	
Goren.	RealUnbn-Hemani	Gal	Gaur17:30				
Emakum.	HemaniAñoiga	Zubpe	Bhar11:30				
Gaz.Eusk	HemaniCruces	Zubpe	Gaur16:30				
Gaz.1	Gue Txoko-Hemani	Matzada	Gaur15:30				
Kad.Oh.	HemaniHenea	Zubpe	Bhar12:00				
Kad.1	Lengokoak-Hemani	Jasonebaso	Gaur11:30				
HaurOh.	HemaniHemani	Henea	Bhar12:00				
Haur1	HemaniUmista	Zubpe	Gaur10:15				
Alebinak	HemaniZarautz	Berb	Bhar11:30				
BOLEBOLA							
Neska	Tonehevega-Hemani	Tonehevega	Bhar12:00				
ERRUGBIA							
Liga Nazio.	HemaniEja	Landae	Gaur16:00				
Euskal Liga	HemaniGaztedi	Landae	Bhar11:00				
Jubenila	HemaniEja	Landae	Bhar12:00				
Infantila	HemaniEja	Landae	Bhar12:00				
Kadeteak	Bera-Bera-Hemani	Landae	Bhar12:00				
WATERPOLOA							
Euskal Liga	Zanaitz-HemaniA	Azpeita	Gaur14:00				
Euskal Liga	HemaniHuña	KioBlega	Bhar13:00				

PELOTA			
Erremontea - Galarretako Jaialdia			
1) Larrea - Gaztelu / Zalakin - Olazar	Galaneta	Gaur16:00	
2) Ezkuna - Auzmendi / Altuna I - Lizaso	Galaneta	Gaur16:00	
3) Zeberio II - Etxeberria III / Altuna II - Etxabe	Galaneta	Gaur16:00	
4) Juaristi-Urko / Bereziartua - Urrutia	Galaneta	Gaur16:00	
Gipuzkoako Txapelketa			
Infant Añeta - Lazkano / Añoiga I	Lasarte	Gaur16:00	
Infant Gamendia - Otaegi / Añoiga II	Lasarte	Gaur16:00	
Kadet Zabala - Gajal / Bergara	KioBlega	Bhar11:30	
Kadet Mundano / Fndz Gorostiza - Mufnoz	Astiznaga	Gaur17:30	
Juben Itxaumondo / Erdioz - Añeta	Itxaumondo	Gaur16:30	
Juben Añoiga / Ramos - Zumutza	Añoiga	Gaur16:30	
Juben Añeta / UnaiEzeiza	Bilana	Gaur17:30	
Juben Leire - Ane / Garazi - Ane	KioBlega	Bhar11:30	
Nagus Aiztana / Alvarez - Sebastian	Aiza	Bhar11:00	
Kronika Txapelketa			
Nagus Etxabe - Gumutz / Apeztegui - Sanchez	Tibsetan	Gaur16:00	
Nagus Leganeta - Ezeiza / Urdabain - Villar	Tibsetan	Gaur17:00	
Nagus Zeha - Urangain / Arambur - Artoñ	Tibsetan	Gaur17:00	

HITZ BITAN

✓ GALDUTAKOAK

Karpeta bat 40 CDrekin. Udaltzainetak karpeta beltz eta gorri bat azaldu da, 40 CD dituela. 943-333288. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ☎ Taxiak: 943 550093
- ☎ Udaltzaingoa: 943 333288
- ☎ DYA: 943 464622
- ☎ Autobusak: 943 556662
- ☎ Anbulatorioa: 943 006666
- ☎ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ☎ Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
- ☎ Gaez: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 ☎ 943 361774

IRAGARKI MERKEAK

Itziar Royo Masajista. Ajuste neurologiko eta berbebrala, naturoterapia, masajea, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33

Pisua salgai zentroan: 3 habitazio, kalefazioa eta balkoi handia. 943 21 99 27

Pertsona bat behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. 2 egunetan bertan egin beharko luke lo: 943 55 64 39 (20:00etatik 22:00etara deitu).

'Inaxitoren Ametsak' antzerkia gaur Sandiusterrin

DOBERA Euskara Elkarteak antolatuta, *Inaxitoren ametsak* antzerkia izango da gaur, 18:00etan, Sandiusterrin. Antzerkia umeentzako dago egina, eta Inaxitok munduan barrena izandako (ametsetan egindako) ibilerak kontatzen ditu. Antzezleak Gorka Tolosa hernaniarra, Ibai Esoain eta Xabier Sukia dira. □

Inaxitoren ametsak

ANTZERKIA



Sandiusterrin aretoan
Azaroak 15, larunbata
Ordua: 18:00etan

6-12 urte bitarteko haurrentzat egokia.

NAFARROA OINEZ-en alde

PREZIOA: 5 euro

Sarrerak salgai: Leten eta Doberan

Antolatzailea: Dobera Euskara Elkarte

Elur-Txori elkarteko mus txapelketa datorren asteartean hasiko da

ELUR-Txoriko mus txapelketa datorren asteartean jarriko da martxan. Binaka eta banaka jokatu da. Binakoan 34 pareja apuntatu dira eta banakakoan 14. □




Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA

ERREMONTA JAIALDIA:

1. partidua: Larrea - Gaztelu / Zalakin - Olazar
2. partidua: Ezkurra - Auzmendi / Altuna I - Lizaso
3. partidua: Zeberio II - Etxeberria III / Altuna II - Etxabe
4. partidua: Juaristi - Urko / Bereziartua - Urrutia

Goiplak



PLADUR MUNTATZAILEAK :

APALAK, EGONGELARAKO ALTZARIAK, SABAI FALTSUAK, TXOKO BEREIZGARRIAK, PARETA BANATZAILEAK, ISOLAMENDU TERMIKOAK ETA AKUSTIKOAK, SABAI MODULARRAK

ERAKUSTOKIA: GUDARIEN ENPARANTZAN
OSTIRALETAN 9:00etatik 13:00etara - 15:00etatik 19:00etara
LARUNBATETAN 9:00etatik 13:00etara

Tel.: 678 60 64 71

HERNANI